

## KONTROL MOZIOA

### Emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakala Donostian dela-eta

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko otsailaren 11an Pertsonentzako Zerbitzutako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## JUSTIFIKAZIOA

Orain urtebete aurkeztu genuen mozioaren sarrera bera emango diogu honako honi: “2017ko azaroan Vera Jourova Europako Batzordeko Genero Berdintasuneko komisarioak nabarmendu behar izan zuen Europako Batasunean emakumeek, batez beste, gizonek baino %16 gutxiago kobratzen dutela, genero arteko soldata tarte murrizteko plana aurkeztu zuenean. Harrez gero, soldata arrakala hizpide izan da, gertuenetik urrutienara, mota eta maila guztietako eragileek horren inguruko datu eta iritziak plazaratu dituztela. Arrakalaren arrazoiak sakonak bezain sotilak dira eta Jourova komisarioak berak hiru faktore nabarmendu zituen: sektore arteko segregazioa, goi karguetara ailegatzeko ezintasuna eta zaintzaren zama; hau da, segregazio horizontalari eta segregazio bertikalari genero rolek eragindakoak gehitu behar zaizkio.”

Izan ere orain urtebete gaian sakondu nahi izan genuen, Donostian emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakalak duen tamaina eta dituen ezaugarri propioak ezagutzeko helburu. Orduan genuen egoera berean gaude urtebete osoa igaro ondoren, iazko greba feministaren eskaerek ez dute hemen argirik eman eta jarraitzen dugu daturik gabe.

Berriz ere Udal Gobernuari interpelazioa aurkeztu genion ezagutzen ditugun datuak oinarri, bereziki enpleguari dagozkionak eta errentari dagozkionak, esan bezala, soldataren arrakalaren daturik ez baitu eskuratu Udal Gobernuak urte osoan eta horretaz, ez dugu ezagutzen. Eraitza izan da, Udal Gobernuaren idatzizko erantzuna lekuko, gaia, Donostiako emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakala, alegia, udaleko taldeon arteko lehia moduan kokatzea: noiz zegoen langabezia tasa altuagoa, 2014ko krisian edo 2018ko egoera ekonomikoan hobetuan, bata eta bestea ea Bilduren garaian edo PNV/PSEren garaian gertatu ote den. Hori da Udal Gobernuaren erantzuna, ezin ulertuz proposatzen zaiona dela ezagutzea eragiteko.

Egun ez dugu ezagutzen, ez arrakalaren kopuru orokorra, are eta gutxiago kopuru horren arrazoiak. Nahiz eta Gobernuaren ordezkariak honako hau esan: “*El Gobierno municipal tiene la intención de continuar desplegando todas las medidas a su alcance para propiciar el empleo femenino en la ciudad, así como para impulsar la mejora de sus condiciones que permita avanzar en la reducción de la brecha salarial global entre los géneros.*” Ez badugu ezagutzen Donostiako egoera zehatza zein den zertan eta nola eragingo da? Nola ziurtatuko du hartuko dituen neurriak neurri egokiak direna?.

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

2018an bai Hiriari dagokion plana, bai Udalaren barrukoari dagokiona bukatu zirenez, balorazioak egiteko unean egon gara, bai eta diagnostikoak berritzeko ere. Soldata arrakala generoagatiko desberdinkerian oinarritzen den sistemaren parte da. Urte luzeetako arazo estruktural hau iraultzeko estamentu guztietatik eragiteko asmo sendoa beharrezkoa izango da, bai eta halaber bakoitzak detaile guztiak zaintzea ere. Donostiako Udalari dagokionez, kanpo zein barne mailan, hirian zein barne funtzionamenduan eragiteko aukera du, eta, egungo testuinguruari egokituta, Udal Gobernuak horren ardura lehenbailehen hartzea beharrezkoa da.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Donostian emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakala delakoa aztertzeko, bai datu orokorra ezagutzeari dagokionez, bai kopuru horren arrazoi nagusiak ezagutzeari dagokionez.

Donostian, 2019ko otsailaren 15ean

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia